

## EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN TELEFONIA FINKOA, TELEFONIA MUGIKORRA, DATUAK ETA INTERNET ZERBITZUEN KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA

### AURREKARIAK

I.- Agiri honen izenburuan adierazi den azterlanaren adjudikaziorako kontratazio-espeditentea prozedura negoziatuaren bidez eta publizitaterik gabe tramitatu da sektore publikoaren kontratuen arloko indarreko araudian ezarri denarekin bat.

II.- Lizitatzaille guztiek baldintzen pleguetan ezarri diren gaitasunaren eta kaudimenaren arloetako beharkizunak bete dituzte eta, ondorioz, onartuak izan dira eta eskaintza guztiak baloratu dira.

II.- Kontratazio-organoak proposamen guztiak aztertu ditu administrazioko klausulen eta zehaztaperen teknikoaren pleguetan ezarri diren balorazio-irizpideen arabera eta irabazlea gertatu den eskaintza Vodafone España, S.A.U. sozietateak aurkeztu duena izan da.

### EBAZPENA

Aurreko hori guztia kontuan hartuta EGABko Batzorde Iraunkorrak, 2016ko azaroaren 30ean egin duen bileran, erakundearen lehendakariak proposatuta, honakoa onetsi du:

1.- Telefonía finkoa, telefonía mugikorra, datuak eta internet zerbitzuen prestazioaren kontratua **Vodafone España, S.A.U.** sozietateari adjudikatzea. Kontratuaren urteko zenbatekoa HOGEITA ZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA ZORTZI EURO (28.848,00) da, gehi BEZaren % 1 21.

2.- Adjudikazio hau EGABren Kontratarien Profilean argitaratzea eta ebazpen hau prozedura honetan parte hartu diren hiru lizitatzaillei jakinaraztea.

Bilbon, 2016ko abenduaren 1ean

**Fco. José Huidobro Burgos**

**EGABko lehendakaria**